

GOMENDIO BATZUK...


HKZ duten pertsonen familientzat

Funtsezkoa da laguntza, ulermen emozionala, ahalduntzea eta erruaren eta ginkargaren murrizketa lantzea.

HKZk familia-bizitza eraldatzen du bat-batean. Normala da honakoa sentitzea:

- Beldurra
- Ziurgabetasuna
- Nekea
- Haserrea
- Trsitura

Horrek ez du esan nahi gaizki egiten denik. Egokitze-prozesuaren parte da.



Zaintzeak komunikatzeko, egunerokoa antolatzeko eta ahul sentitu gabe laguntza eskatzeko modu berriak ikastea dakar.

Familiak ez dute bakarrik hartu behar zaintzaren pisu guztia: badira baliabide sozial, sanitario eta komunitarioak bide horri laguntzeko.

• Zaintzeak ere zainketak behar ditu.

• Ez zaude bakarrik.

• Laguntza eskatzea zure familia babesteko modu bat da.

• Familiak ere laguntza profesionala behar du.

Profesional soziosanitarioentzat

Ikuspegi integralarekin lan egin behar dugu, koordinazioan, portaeraren ulermenarekin eta sarean.

Hartutako kalte zerebrala ez da lesio neurologiko bat bakarrik, aspektu hauetan eragina duen baldintza konplexu bat baizik:

- Funtzio kognitiboak
- Komunikazioa
- Familia-dinamika
- Parte-hartze soziala
- Emozioak

Arreta eraginkorrak hau eskatzen du:

- Asistentziaren jarraitutasuna
- Pertsona ardatz duen ikuspegia
- Gizarte- eta osasun-koordinazioa
- Familiari aktiboki entzutea
- Diziplinarteko lana

Portaera zailak ez dira erresistentzia eta motibazio falta, ondorio neurologikoak baizik.

• HKZ lesio bat baino gehiago da: errealitate biopsikosoziala da.

• Familia talde terapeutikoaren parte da.

• Jokabidea ulertzea tratamenduaren parte da.


• Gizarte-koordinaziorik gabe, ez dago erabateko errehabilitaziorik.

Komunitatea eta herritarrentzat

Oinarrizkoa da empatia, estigmen haustura eta erantzukizun kolektiboa gauzatzea.

HKZren ondorio asko ikusezinak dira:

- Oroimen-arazoak
- Kontzentratzeko zailtasunak
- Aldaketa emozionalak
- Komunikazio-arazoak



Pertsona batek fisikoki "ondo" dagoela eman lezake eta benetako laguntzak behar izan.

• Desgaitasun guztiak ez dira ikusten.

• Ulertzeak bizitzak aldatzen ditu.

• Pazientzia inklusioa ere bada.

• Informatutako komunitate bat zaintzen duen komunitate bat da.